

• LEHEN MAILAKO IRAKURKETA ETA IDAZKETA METODOAREN AURKEZPEN OROKORRA
--

LEHEN URTEA

Hemen proposatzen den irakurketa eta idazketa metodoa edo ikas-liburua, kodearen ikasteko **metodo fonetiko / silabikoan** oinarritua da.

Bestalde, irakurketa / ulermena lantzeko, urte hastapenetik eta paraleloki, **haur literaturako albumen** ustiapenak proposatzen dira.

1 - Kodearen ikas-liburua

- **Ikas-liburuaren egitura :**

Aste guzietan fonema bat lantzen da (z, x, k ...). Fonema bakoitzaren kasuan olerki/kantu bat edo bi proposatzen da.

Otsaila arte, ipuin batek, olerki/kantu guztiak josten ditu, hots, ipuinaren pertsonaia tipikoa kantuetan eta ariketetan ibiltzen da. Pertsonaia horren abenturek dute ipuina osatzen.

Fonema berri bakoitzaren hastapenean, pertsonaiak (adib. Pirulin Marisorgin) du hots berria ekartzen, testu motz batez eginiko ipuinaren zatian.

Otsailetik landa, kodea ikusia baita, testu mota desberdinak proposatzen dira, hots konplexuagoak lantzen segituz.

- **Hots bakoitzarentzat proposatzen da:**

Irakaslearendako gida fitxa :

- Lantzen diren konpetentziak
- Behar den eta eraikitzen ahal den materiala
- Ikasleak behar duena.
- Sekuentzia urratsez urrats azaldua : taldeko eta bakarkako jarduerak, liburuko fitxen erabilpena.

Ikaslearentzat:

- “Pirulin Marisorgin” ipuinaren zatia
- Kantu bat edo bi
- Hotsa entzun/ silaba entzun
- Silabak irakurri
- Silabak idatzi
- Hitzak osatu
- Hitz berriak irakurri eta idatzi
- Erranaldi berriak irakurri eta idatzi
- Testu berria irakurri

Ikaslearen ariketak (ariketak eta idazlanak) fitxategi batean dira.

2 - Irakurketa/ulermena : albuma

Ikaslea irakurle egoeran emateko, 4 aste guzietan haur literaturako album baten lantzea proposatzen da.

Ikasle bakoitzak liburu bat badu eskuetan.

Irakaslearentzat : egiten ahal diren jarduerak gida fitxa batean azalduak dira.

Ikaslearentzat : jarduera gehienak ahoz dira .

Fitxa batzuk proposatzen dira ere.

BIGARREN URTEA (CE1)

Bigarren urtea 6 garaitan egituratua da : 6/7 astetako epeak dira.

Garai bakoitzari, irakurketa/ idazketako konpetentzia orokor bat doakio, urraspide baten arabera. (Ikus bizkarrezurra)

Urtean zehar lau testu iturri aurkituko dira :

- Euskal haur literatura
- Mitologiari buruzko testuak
- Itzulpenak
- Dokumentalak

Garai bakoitzean proposatuko dira :

- **irakurketa**: lau edo bost mota desberdinetako **testuak** (4 iturrietatik hartuz, gaiaren arabera)
- **idazketa ariketak**
- **kodearen** azkartzea/ortografia
- **hiztegia**
- **idatzizko ekoizpena**
- **testu gramatika**

Azken garaian, haur literaturako liburu oso baten irakurtzea proposatzen da.

HIRUGARREN, LAUGARREN ETA BOSGARREN URTEA (CE2 CM1 CM2)

Urte bakoitz, garaika egituratua da, irakurketa/idazketako konpetentzia baten inguruan, urraspide baten arabera.

Urtean zehar lau testu iturri aurkituko dira :

- Euskal haur literatura
- Mitologiari buruzko testuak
- Itzulpenak
- Dokumentalak

Hirugarren urtetik landa, gramatika deslotua izanen da,

erran nahi baita, liburuak 2 zati izanen dituela :

1 - irakurketa/idazketa : garaika

- irakurketako testu desberdinak
- ulermen ariketak
- idazketa ariketak
- ahozko ariketak
- idatzizko ekoizpena

2 – Gramatika : urraspide bat hiru zatitan

- perpausak eta perpausen osagaiak
 - aditzak
 - ortografia/hiztegia/deklinabideak
-